

Emakumeak lasterka

Datorren igandean, martxoak 16, Litalola egingo da Donostian. Lasterketa 11.00etan hasiko da Alderdi Ederren. Urtero bezala, parte hartzaileek bost kilometroko bilbidea egin beharko dute hiriko kaleetan barrena eta Alderdi Ederren bertan izango dute helmuga. Izadi (Usandizaga 18) eta Ialster (Elkano 6) kirol dendetan, 943462866 fax zenbakian eta litalon@euskalnet.net posta elektronikoa helbidean eman daitezke izena. 3 euroren truke. Lasterketa egunean bertan ere izena eman ahal izango da udalplexean (5 euro). Hiru maila bereiztuko dira: juniorak, 14 eta 17 urte bitartekoak; seniorak, 18 eta 39 bitartekoak; eta beteranoak, 40 urtetik gorakoak. Maila bakoitzeko lehen hiru sailkatuak garaikurraren emango zaien eta lasterkari guztiek elastiko bana jasoko dute.

**Irabazi beharra**

Bera-Berako neskek, Europako Txapelketan eta Erregina Kopari agur esan eta gero, buru-belarri ekin beharko diote Liga txapelketan. Talde donostiarra egun seigarren da sailkapenean eta denboraldia laugarren postuan amaitzea du helburu. datorren urtean berriro ere Europako Txapelketa jokatuko ahal izateko. Aurretik dauden taldeak urrun ez daitezaz, ezinbestekoa da Bera-Berak larunbatean Leon taldeari azken postuan une honetan Bidebietan irabaztea. Partida 19.30ean hasiko da.

Adinari beldurrik ez

Atzo hasi zen Donostian betarano mailako Europako Atletismo Txapelketa. Igandera arte, 35 eta 91 urte bitarteko 1.582 kirolari ari dira Belodromoan.

Raul Perez

Beteranoen Europako Txapelketa bi urtean behin jokatzen da eta Donostiako laugarren urtea da. Aurretik txapelketa hau Birminghamen (Ingalaterra), Bordelen (Frantzia) eta Malmöen (Norvegia) jokatu da. Antolakuntzak emandako datuen arabera, Anoetako Belodromoan jokatzen ari diren probetan (lasterketak; luzeera, altuera eta pertika jauziak; pisu-jaurtiketa...) 1.582 lagun ari dira parte hartzen: 1.164 gizonezko eta 418 emakumezko. 91 urteko Vittorio Colo italiarra da txapelketa honetako atletarik zaharrena.

**1.600 atleta
beterano ari dira
Belodromoan**

Sasoi betean

Etsekoei dagokionez, gizonezkoen artean, Santi Auzmendi jostuna edota gipuzkoako Atletismo Federazioko presidente ohi Juantxo Sabadie nabarmendu behar dira. Emakumezkoetan, besteak beste, Itziar Aristi 42 urteko antiguatarra parte hartzen ari da. Itziar 14 urterekin hasi zen kirola egiten eta orduz geroztik, hamaika probatan jardun du: krosa, 300 metroko lasterketa, mailu eta pisu jaurtiketa... Europako Txapelketan pisu jaurtiketan lehiatzen ari da Itziar. Donostiako

Atletikoko kirolari honek beterano mailako nazioarteko txapelketa askotan parte hartu du, 1996an Hego Afrikako Durban hirian jokatutako Munduko Txapelketan eta Bordelen 1999an jokatutako Europako Txapelketan, kasu. Itziarrek oroitzapen ezinhobeak ditu Hego Afrikako txapelketaz, finalerako sailkatu zen eta. Kirolari antiguatarraren ustez, txapelketa hauek beharrezkoak dira: "Finean, atleta beteranoek kirola egitea erabat onuragarria dela erakusten dugu. Harrigarria da ikustea adin guztietako atletak zer nolako prestakuntza egiten duten sasoiaregoteko".

Atleta beteranoek Donostian beste hitzordibat izango dute bi urte barru, 2005ean Munduko Txapelketa jokatuko baita gurean.

